

## Taberna Irazoki, Mikel ("Kapi")

*(Alkaiaga, 1957)*

Licenciado en Biología. Trabajo de traductor en la Administración.

Tuve conocimiento de la poesía vasca (Aresti, Mirande, Artze… y poesía popular) gracias a los cantantes que la interpretaban; en narrativa, Atxaga y Sarrionandia fueron mis primeras referencias. También me interesé por el bertsolarismo. Mis primeros trabajos aparecieron en *Ttipi Ttapa*, prensa local bidasotarra, hacia 1981; más tarde, años 1984-1988, fui integrante del grupo fundador de la revista literaria *Korrok*. He colaborado en otros medios (*Egunkaria, Euskalerria irratia, Xorroxin*, *Nabarra*…). Publicaciones: aparte de trabajos premiados en certámenes, *Txokolatezko dinamita* (cuentos; Susa, 2001) y *Alkasoroko benta* (novela; Susa, 2013). En literatura infantil y juvenil: *Ibaiak nahi duen tokiraino* (Pamiela, 2006), con la ilustradora Maddi Irazoki. Narraciones sueltas en libros colectivos y en el periódico *Berria*.

Biologian lizentziaduna. Lanbidea: itzultzailea Administrazioan.

Euskal kantariei esker hasi nintzen gure poeten lanak ezagutzen (Aresti, Mirande, Artze… eta herri poesia); narrazioan, Atxaga eta Sarrionandia izan ziren nire lehenbiziko erreferentziak. Bertsolaritzan ere murgildu nintzen. Estreinako idazlanak, Bidasoaldeko *Ttipi Ttapan*, 1981 aldera; gero, 1984-1988 urteetan, *Korrok* literatur aldizkaria sortu zuen taldeko partaide izan nintzen. Bertze zenbait komunikabidetan ere kolaboratu dut (*Egunkaria*, *Euskalerria eta Xorroxin irratiak*, *Nabarra* …). Argitalpenak: lehiaketetako lan sarituez aparte, *Txokolatezko dinamita* (ipuinak; Susa, 2001) eta *Alkasoroko benta* (eleberria; Susa, 2013). Haur eta gazte literaturan: *Ibaiak nahi duen tokiraino* (Pamiela, 2006), Maddi Irazoki irudigile. Narrazio solteak liburu kolektiboetan eta *Berria* egunkarian.

GAUA LUZATZEN DUGU...

*gaua luzatzen dugu*
*urrezko flekilloak bilaka*
*farolen adarretan barrena*
*eta katu begiraden azpian*
*amildu nahirik*

*gaua luzatzen dugu*
*beirazko ontziei keinuka*
*ostatu ilunduetako hodeietan*
*eta irri eutsietako ezpainei*
*begira*

*gaua luzatzen dugu*
*ilargi itsugarriak behartuta*
*hiriaren espazio itoan*
*eta tristura konprenigaitzaren*
*zama adiskidearekin*

*gaua luzatzen dugu*
*zuku beltzaren azken tanta xurrupatuz*
*asesinatu nahi ditugun erlojuen atzetik*
*eta komunikazio ezintasunaren hatzaparretan*
*preso*

*gaua luzatzen dugu*
*hauts bihurtuko diren ametsak fabrikatuz*
*ustezko zorionaren itsasoko txalanta morean*
*eta mugierazten gaituzten hari beretatik*
*zintzilik*

*gaua luzatzen dugu*
*haragizko ezpatak zaurituk*
*torturagelako oihan laberintikoetan*
*eta egun berriaren errainu pozointsuen*
*beldurrez*

*(Korrok, 1988).*





## Urabayen Galdiano, María Blanca

*(Villamayor de Monjardín, 1931)*

Mi nombre completo es María Blanca Urabayen Galdiano. Nací en Villamayor de Monjardín, Navarra, un 27 de septiembre de 1931. Aunque he pasado la mayor parte de mi vida en la ciudad de Estella-Lizarra, donde vivo desde que me casé.